

berbarotarra

25. alea 2002ko otsaila

BERBARO

elkartea

MARTXOAK 31



Martiaren 31 egun seinalatu da gure herrian, 1937an Francoren agindupeko Junkersek eta Heinkelek babesik bako Durango bonbaz txikitu ebenetik. Halandabe, bonbaketa bizi ebenek ondo gogoan dabeen arren, belaunaldi barriek ez dauke haren barri handirik, **d u r a n g o k o** herritarrok ez dogu-eta egun horren bueltan ekitaldi berezirik egin izan, ahalegin ia pertsonal bat edo beste salbu. Zelan bizi, baina, hainbeste hildako eragin ebazan krimena izan ez balitz lez.

Memoria historikori eustea danon egin beharra dalakoan, askok ahaztu gurago leukeen bonbaketa gogoratzeko ekitaldiei

ekin geuntsan igaz Berbarotik, bi helburu nagusi-gaz. Gazteleraz kontatu dauskuen historia euskeraz berridazteko, batetik, eta beste alkarlana sendotzeko, bestetik. Halan, Gerediaga alkarlana eta Kriskitiñ dantz taldeagaz batu genduzan gure ahalmenak igazko ekitaldietarako eta halan egin dogu aurten be. Frutu politikak emon ebazan pasadan urteko **a h a l e g i n** harek: Jon Ira-

zabalen "1937 martxoak 31 DURANGO" liburua kaleratu zan, gogoratze ekitaldia burutu zan eguerdian Andra Marin eta ikuskari arrakastatsua iluntzean San Agustinen. Gure asmoa da,


hainbesteko emaitzak lortzea aurtengoan be.

Izan be, hasitako bidea ez da inora heltzen jarraipenik ez badauko eta gure helburu nagusia, zeregin honi urtero-urtero erantzutea da. Helburu horregaz, bonbaketa bera eta bonbaketa zerikusia daukeen beste gertakari batzuk gogoratzeko hainbat ekitaldi gauzatuko doguz urtean urtean, eta aurten jai tokatzen dan asteburu horretarako egitaraua mimoz prestatzen dihardugu. Martxoak 31 Aberri Eguna dogu gainera aurten eta ez da zer gogorazorik faltako. Aste santuan kanpoan izango ez zaren danok gonbidatu gura zaituegu ekitaldietara, eta adi egoteko deia egin gura geunskizue egun honen harira antolatu eta aurrera atarako doguzan ekintzei begira.

Ahaztu barik

Gustu ezberdinak asetzeko moduko eskeintza musikala daukagu hilabete honetan Berbaro tabernan, doinu gogorren zaleak zein musika herrikoia maite dutenak konforme uzteko modukoa, eta noski, musika orohar gogoko duenak, bi belarriak gozatzeko ez du aukerarik faltako.

Martxoaren 7an, **IGELAREN BANDA** izango dugu gurekin. Pieza tradizionaletatik abiatuta, inprobisazioari leku egingo diote musikari ezin finago hauek, folketik jazzera jauzi eginez eta alde-rantziz.



Martxoaren azken aurreko astean, berriz, **LIF** taldeko hondarrabitarrak izango ditugu gure artean, aspaldiko abestiak eta entsegu lokalean sortu berriak guri eskeintzeko. Rock gogorra atsegin duzuenok, aparteko aukera duzue burua astindu, garagardo batzuk edan eta barruak apur bat nasaitzeko.

12. Haur Literatura Aretoa 2001

Berbaroren historian Haur Literatura Aretoak (HLA) leku berezia du, elkarteak eginiko lehenengotako ekintza izan baitzen hura. Ondorengo hamabi urteetan, hutsik egin barik, edukiz eta eskaintzaz aberastu da HLA gaur egungo antolakuntza mailara heldu arte. Aurtengoan ere HLAk bi adar izan ditu: bata, eskolei zuzendutako HLA eta bestea, Liburu eta Disko Azokako egunetan azokaren gunean bertan antolatutako HLA.

Eskolei zuzendutako HLA:

Haur Literatura Aretoak Haur Hezkuntzan (3 eta 5 urte bitarteko haurrak) eta Lehen Hezkuntzan (6 eta 12 urte bitarteko haurrak) irakurketarako zaletasuna bultzatzea eta literatura lan gomendagarriak lantzea du oinarri. Adin bakoitzak bere formatoa du: antzerkia, Ipuin kontaketa, Liburu Erraldoia, Idazleekin elkarrizketak (10 idazle), Erakusketa girotua,... ikasleen mailara hurbiltzen da HLA, beraien interesguneetatik irakurketara hurbiltzeko. Erakusketan liburu berriak eta gomendagarriak jartzen dira gazteenak giro erakargarri eta dinamizatu baten bitartez irakurketara animatzeko.

Aurten Durangoko ikastetxe gutziek parte hartu dute HLAN

Osagai moduan liburuxka bat argitaratu ohi du HLAk guraso, ikasle zein irakasleek sortzen diren lan berriak eta gomendagarrienak, erakusketatik aparte, urtean zehar erabili ahal izateko. 2001. Azarotik, 2002. Urtarrilera, aurrez adostutako eskola, liburutegi eta udal erakundeekin egin da

lana. Hain zuen ere, Durango, Elorrio, Abadiño, Iurreta, Berriz eta Zaldibarko ikastetxeekin.

Guztira 2.871 umek parte hartu dute 12. Haur Literatura Aretoan eta ekintza arrakastatsua izan da. Durangaldeko haurren artean euskararen erabilera bultzatu eta euskal literaturari hedapena emateko ekintza aproposa da HLA. HLAren antolatzaile den Iraide Arriolabengoaren ustez *“HLA ren bidez, ume askorengana, eta ikastetxe eta irakasle askotara heltzen gara, eta horregaitik, urtez-urte zaindu, berritu eta hobetu behar den ekintza bat dela uste dugu. Aurten Durangon ikastetxe gutziek parte hartu dute HLA-n eta Durangaldean, urtez-urte gero eta gehiago animatzen direla ikusten dugu”*. Beraz, aurten ia 3.000 haur jarri ditu HLA-k literaturaren eta euskararen bueltan, berriz ere. Datorren urtean 1000 gehiago izatea espero dugu.

Liburu eta Disko Azokako HLA:

Liburu eta Disko Azokan Gerediagarekin batera, *“Haur eta gaztetxoek Literatura Txokoa”* antolatu zen. Espazio horretan, haur eta gazteek liburu eta literaturarekin gozatzeko hainbat bide izan zituzten: Liburu Erakusketa, Jolas eta Irakurketa librea, Haurren Jolas-Abestiak, Galtzagorri Elkartearen *“Ipuin Biltzaileen”* era-

kusketa, Ipuin Kontalariak (Ane Berasategi eta Alaitz Muro), Irudi tailerrak (Mikel Valverde, Montxo), Itzal Antzerkia (Erreka Mari).

Itzelezko jendetza bildu zuen HLAk Azokan. 300 ume eguneko eta 1.500 ume azoka osoan zehar. Aretoaren metro urriak kontutan hartuta, ez dago esan beharrik, espazio arazoak izan zirela.

Azkenik, ez dugu ahaztu gura egitasmo hau aurrera eramate-

Azoka osoan zehar 1.500 ume igaro ziren HLAren karpantik


ko 2001. urritik abendura, 20 pertsona lanean ibili zirela eta beste 15 laguntzen (irakasle, bazkide, e.a.). Beraz, eskerrak horiei guzti horiei, eta baita, Gerediaga elkar-tea eta Durangaldeko Udalei, eman diguten laguntzarengatik.

Amaitzeko, hamabigarren HLA honen balorazio oso positiboa egin zuten antolatzaileek baina horrekin batera, prestakuntza lanak egiteko denbora gehiago izanez gero urte osora hedatu daitekeen proiektua dela azpimarratu zuten. Ordua da literatura Azokaren date-tatik kanpora ere ateratzeko.

telebista erderaz?



Gaztetxo batzuk erabat sartzen dira istorioetan.




Mikel Valverde marrazkilaria azokako HLAN.



... eta hauek zelan gobernatu?



Txiliku irakurle sutsuei liburuak sinatzen.



Pako Aristi, pentsakor.



Umeak, Ormazabalen kritikari.



Gorka Barruetabeña

Urte honen hasieran Duran-
gon telebista bat egitera doazela jakin gendun.
Aste pare batera,
telebista hori “derrigorrez”
erderaz edo “batez be
erderaz” izango dala be irakurri ahal
izen gendun. Gure artean, kezka
handia sortu dau kontu horrek.

Oraintxu entzun dot irratian,
Unescok euskarari buruz egin dauan
azterketa baten barri. Iparraldean
euskara galtzeko zorian dagoala eta
hegoaldean be, kontua ez dagoala
asko hobeto dino.

98an Jaurlaritzako Euskara-
ren aholku Batzordeak “*euskararen
normalizinoak ezinbestekoa dauan
plan estrategiko argia eta zehatza*”
(Mari Karmen Garmendia) egin
eban. “*Horretarako euskararen
indarguneak eta ahuleziak non
dagozan aztertu eban*”. Bi puntu
papeleratu gura neukez: “*eskolak
euskalduntzen dauan gaztea pren-
tsak erdalduntzen dau eta doi-doi
bizi dan euskarazko prentsak
erdarazko ugariagoak, hobeak eta
indartsuagoak ditu lehiakide eta
politikoek eta administrazinoak ez
dautsie garrantzi handirik emoten
horri*”.

Azterketa hori egin eta gero,
hainbat soluziobide planteatzen
dauz plan horrek: “*Komunikabidee-
na funtsezko esparrua dala aitutzen
dau eta Herri Komunikabideen
alorrean, udalaren zeregin nagusie-
tako bat euskarazko komunikabide-
ak sustatzea izan behar dala esaten
dau argi eta garbi*”.


Oindino be, Durangaldeko
udaletako gobernu organuetan
zagozeenok aukeratzeko moduan
zagozee: edo erdarazkoa egiten utzi,
herria gehiago erdalduntzeko
(gainera gero, pare bat urtera,
euskaldunagoa izan daiten lagun-
tzak emon beharko deutsezuez) edo,
euskarazkoa martxan jartzen
lagundu, horretarako gaitasuna
daukeenei.

Datozenak

- Martxoaren 4tik 17ra **Alen Silvaren** argazkiak BERBARO tabernan, "Ecuador eta Peru".
- Martxoaren 18tik apirilaren 7ra **Arantza Arinen** "Nikaraguako argazkiak", BERBARO tabernan.
- Martxoaren 7an, osteguna 20:30etan, **Igelaren Banda** (Bixente Martinez, Txarli de Pablo, Iñigo Egia) BERBARO tabernan, KULTUR ERROTAREN barruan.
- Martxoak 21, iluntzeko 20:30etan **LIF** taldearen kontzertua BERBARO tabernan.
- Martxoak 31, eguerdian, 1937ko bonbaketaren gogoratze ekitaldia Andra Mariko elizpean.

LARROSA

Durungalde osorako behar egingo dauan euskara zerbitzua martxan jarriko dau Mankomunitateak. Joan



dan otsailaren 5ean amaitu zan Durungaldeko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua akuratzeko lehiaketa publikoa. Uda aurretik hartuko da zerbitzu hori zeini esleituko jakon esango dauan erabakia. Berandutxo bada be, pausu hori emon izanagatik hilabete honetako larrosa Durungaldeko Mankomunitateari.

ARANTZA

Hainbat bazkidek deitu deusku Euskadiko Kutxak Ezkurdiko bulegoan euskarari emoten deuskan tratamendu eskasa dala-eta. Bertaratu eta egiaztatu egin genduan bazkideen kexua. Lehiatiletan eta bulegoan zehar jarrita egoazan kartelak 13 ziran. Horreetatik 11 erdera hutsean egozan eta beste bi ele bitan. Horregatik, hilabete honetako arantza, Euskadiko Kutxari.



Lau berbatan

● **Batzar Nagusia maiatzean**

Badakigu berandutxo dala maiatza Batzar Nagusia egiteko. Aurtengo honetan lehenago egiteko asmoa be euki dogu baina esku artean darabilguzan gai batzuk behar dan moduan aurkeztu ahal izateko maiatzera atzeratzea erabagi dogu. Berbaroren urteurrena be hilabete horretan danez, ea biak alkartu eta aurreko urteetan baino jende gehiago batzea lortzen dogun.

● **Taberna ingurua txukuntzeko lanak**

Beharbada boletin hau jasoten dozuenerako gure tabernaren ingurua txukuntzeko lanak amaituta egongo dira. Beharbada ez. Lanok amaitzen diranean Santanoste kaletik ezingo da autorik sartu Santa Ana plazara eta horrek taberna inguruan sortu zan legez kanpoko parkinga desagertaraziko dau behin betiko, danon pozerako. Lanok ingurua narrats samar itzi dabela aprobetxatuz, geuk be, taberna itxi eta atondu bat emotea erabagi dogu. Otsailaren azkeneko astean taberna zarratuta egongo da.

● **Txokoa**


Ukaezina da txokoa bertan behera itzita euki dogula bertako bazkideok. Arazo horri amaiera emon gurean bazkide talde bat elkartu da eta oinarri-oinarririk hasi gura izan dau txokoa atontzen. Bazkide talde honek oinarritzko lanak egin eta hutsuneak detektatzeko asmoa dauko, hori egin ostean bazkideak batzar batera deituko dauz apirilaren erdi aldera. Bazkideoi bertaratzeko dei egiten deusuegu erabaki garrantzitsuak hartuko dira-eta. Txokoari adarretatik heltzeko sasoia da.

● **Kultur ekitaldiak interneten**

Berbarok antolatutako kultur ekintzen berri izateko beste bide bat daukoze hilabete honetatik aurrera. Iaz sarrera jaso genduan web orrian kontsultatu ahal izango dozue hilabeteroko kultur ekitaldiak.

● **Uxune Martinezen aurkezpena**

Berbaroren Zuzendaritzak ikusi eban bazkideekaz izan beharreko haremna gehitxoago zaindu behar zala. Lanean aspaldidanik badabil be, hauxe da boletin bitartez Uxune Martinez aurkezteko deuko- gun lehenengo aukerea. Berbaroren bulegora deitu edo joaten bazaree beragaz egingo dozue topo.



● **Anboto**

Azaroan Anboto astekaria aurkeztu gendunean 10.000 harpidedun lortzeko asmoagaz jaiotako komunikabidea zala esan genduan. Hiru hilabete

igaro dira eta dagoeneko 7.000 etxetara heltzen dala esan geinke. Epe labur horretan lortzeko ez da kopuru txarra baina gehiagoren bila gabiz!